

2025eko Ekainak 20 Manifestua. Errefuxiatuen nazioarteko eguna.



Manifiesto 20 de junio de 2025. día de las personas refugiadas

Ekainaren 20an errefuxiatuen nazioarteko egunean, ALDARTEtik, bizi garen sistema, patriarkala, arrazista, sexista eta LGTBIQ+fobikoa dela salatu nahi dugu eta, gizarte-esparru guztiak zeharkatzen dituela, askotan ezezaguna den LGTBIQ+ errefuxiatuen errealitatea ikusezin bihurtuz.

SALATU nahi dugu:

- Gaur egungo migrazio-politika, bereziki 2025eko maiatzaren 20an indarrean sartu den Atzeritarrei buruzko Erregelamendu berria, asilo-eskatzaileen eskubideetan atzerapausoa baita. Erreforma horrek, eskaera ukatuz gero, dozenaka mila pertsona kondenatzen ditu babes hori galtzera ez ezik, beste bi urteko itxaronaldi bati aurre egitera ere, errotzeagatik baimena eskatu ahal izateko, ez baitzaie alde aurretik emandako denbora aitortzen. Neurri horrek oinarritzko eskubideak urratzen ditu, eta haien ziurgabetasuna eta sufrimendua luzatzen du.
- Asilo-sistemaren gaur egungo kolapsoa (5 hilabete baino gehiago behar dituzten poliziako hitzorduak, langilerik eza, espedienteen ebazpenetan atzerapena...), asilo-eskatzaileak zaurgarritasun handiko egoeran uzten dituena.
- Asiloa eskatzeko prozesuetan indarrean jarraitzen duten sexu- eta genero-aniztasunari buruzko aurreiritziak eta estereotipoak.

ESKATU nahi dugu:

- LGTBIQ+ errefuxiatuen errealitatea ezagutzera ematea, sexu- eta genero-aniztasunagatik beren herrialdeetatik ihes egiten baitute, askatasunez bizi ahal izateko. Errealitate hori gaur egun gizarteak oso gutxi ezagutzen du, eta agerian egon behar du, guztion artean errealitate horretan zuzenean eragiten duten estereotipoen eta aurreiritzien gatazkaren aurka tematzeko eta borrokatzeko.
- Sexu- eta genero-aniztasunaren alde lan egiten duten pertsonen, elkarten, kolektiboen eta erakundeen arteko laguntza-sareak sortzen laguntzea, LGTBIQ+ errefuxiatuentzako harrera-gune seguru eta erreferenteak izan daitezen.

Horregatik, pertsona eta kolektibo guztiei dei egiten diegu EAEko udalerrietan errefuxiatuen eskubideen alde antolatuko diren mobilizazioekin bat egiteko.

Desde ALDARTE y con motivo del día 20 de junio, día internacional de las personas refugiadas, queremos denunciar que el sistema en el que vivimos es patriarcal, racista, sexista y LGTBIQ+fóbico e impregna todos los ámbitos sociales invisibilizando una realidad muchas veces desconocida como es la de las personas refugiadas LGTBIQ+.

DENUNCIAMOS:

- La política migratoria actual y especialmente el nuevo Reglamento de Extranjería que ha entrado en vigor el 20 de mayo de 2025 y que supone un retroceso en los derechos de las personas solicitantes de asilo. Esta reforma, en caso de denegación de la solicitud condena a decenas de miles de personas no solo a perder esta protección, sino también a enfrentar una espera de dos años adicionales para poder solicitar una autorización por arraigo, al no reconocerles el tiempo de permanencia previo. Esta medida vulnera derechos fundamentales y prolonga su incertidumbre y sufrimiento.
- El colapso actual del sistema de asilo (citas en policía que tardan más de 5 meses, falta de personal, demora en las resoluciones de los expedientes...) que deja a las personas solicitantes de asilo en una situación de gran vulnerabilidad.
- Los prejuicios y estereotipos sobre la diversidad sexual y de género que continúan vigentes en los procesos de solicitud de asilo.

QUEREMOS:

- Dar a conocer la realidad de las personas refugiadas LGTBIQ+, que huyen de sus países perseguidas por su diversidad sexual y de género y que buscan poder vivir libremente. Se trata de una realidad que todavía hoy es muy poco conocida por la sociedad y que necesita ser visible para que así podamos entre todas, combatir y luchar contra los estereotipos y prejuicios que impactan directamente en esta realidad.
- Contribuir a crear redes de apoyo entre personas, asociaciones, colectivos y entidades que trabajan a favor de la diversidad sexual y de género, para que sean espacios de acogida seguros y referentes para las personas LGTBIQ+ refugiadas.

Por eso, llamamos a todas las personas y colectivos a sumarse a las movilizaciones que se organizarán en los distintos municipios de la CAV en apoyo a los derechos de las personas refugiadas.